Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2192

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 8koa, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearena. Honen bidez, Etortek programarako 2009ko laguntza-esleipenaren baliabide ekonomikoak handitu direla jakinarazten da. Programa horren bidez, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak laguntzak ematen ditu, ikerketa estrategikoak egiteko.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2002ko urriaren 7ko Aginduak (2003ko apirilaren 16ko Aginduarekin eta 2005eko martxoaren 22ko Aginduarekin aldatu denak) Etortek programa arautzen du, alegia, ikerketa estrategikoak egiteko laguntzak ematen dituen programa.

Agindu horren 9. artikuluak dioenarekin bat etorriz, Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordearen 2009ko otsailaren 11ko Ebazpenez deialdia egin zen, 2009. urtean, Etortek programaren barruan Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ikerkuntza estrategikorako ematen dituen laguntzak jasotzeko. Deialdi hori 2009ko otsailaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Kontuan hartuta Etortek programaren barruan aurkeztu diren laguntza-eskabideak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak aurrekontuetan erabilgarri dituen baliabideak, egokia da 2009. ekitaldirako programan ezarritako funtsak gehitzea.

Horrenbestez, aipatutako ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuan xedatutakoari dagokionez, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Etortek programako laguntzak jasotzeko 2009ko deialdiaren 2009ko otsailaren 11ko Ebazpenean (otsailaren 23ko EHAA) aurreikusitako diru-baliabideak 33.533.613,00 eurora arte gehitzea, honela banatuta: 2009. ekitaldirako, 16.533.613,00 euro: 2010. ekitaldirako, 8.000.000,00 euro; eta 2011. ekitaldirako 9.000.000,00 euro; betiere, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste programa batzuk gauzatzerakoan agortu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

2192

RESOLUCIÓN de 8 de abril de 2009, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados para la concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo para la investigación estratégica en el marco del «Programa Etortek», para el ejercicio 2009.

La Orden de 7 de octubre de 2002, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por la Orden de 16 de abril de 2003 y la Orden de 22 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, regula el «Programa Etortek» de ayudas a La investigación estratégica.

De conformidad a lo establecido en el artículo 9 de la citada Orden, el Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial dictó resolución con fecha 11 de febrero de 2009, publicándose la convocatoria en el BOPV de 23 de febrero del 2009, para el ejercicio 2009, de concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo a la Investigación Estratégica en el marco del «Programa Etortek».

Teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, dentro del Programa Etortek, y en función de las disponibilidades presupuestarias del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, procede realizar un incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la resolución de convocatoria, en relación con lo dispuesto en el Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo

RESUELVO:

Primero.– Incrementar hasta un total de 33.533.613,00 euros, los recursos económicos previstos en la resolución de convocatoria de 2009 de ayudas en el marco de Programa Etortek, de fecha 11 de febrero de 2009, publicada en el BOPV de 23 de febrero, para el ejercicio 2009, quedando desglosados de la siguiente manera 16.533.613,00 euros para el ejercicio 2009, 8.000.000,00 euros para el ejercicio 2010 y 9.000.000,00 euros para el ejercicio 2011, en función de las disponibilidades presupuestarias.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari hilabeteko epearen barruan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 8a.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

Segundo.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de abril de 2009.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.